


Literatura unibertsala

- BATXILERGOA
- LANDIBE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKANTASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Universidad
del País Vasco

Euskal Herri
Unibertsitate

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2014ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2014

LITERATURA UNIVERSAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

Aukera bakoitzean, 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

1. galdera: 3 puntu.
2. galdera: 2 puntu.
3. galdera: 3 puntu.
4. galdera: 2 puntu.

2., 3. eta 4. galderak testuari eta nahitaezko irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren beste edukiekin lotuta dago.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1: 3 puntos.
- Pregunta 2: 2 puntos.
- Pregunta 3: 3 puntos.
- Pregunta 4: 2 puntos.

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herri
Unibertsitate

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2014ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2014

LITERATURA UNIVERSAL

TESTUA

HAMLET

Jaun prestua, zainduko al duzu antzezleok ostatu ona izan dezaten gurean? Adu: ongi trata ditzatela, berak baitira gizaldiaren bilduma eta kronika laburra. Hil ondoren epitafio txar bat hobe dukezu, bizi zarela hauen iruzkin gaiztoa baino.

POLONIO

Jauna, merezi duten arabera tratatuko ditut.

[...]

HAMLET

Zoazte berarekin, adiskideok. Antzezaldia izango dugu bihar.

Gainerakoak Poloniorekin doazela, lehen antzezlea bereiz hartzen du.

Aizak, lagun xahar, antzez al dezakezue *Gonzagoren Hilket*a?

LEHEN ANTZEZLEA

Bai, jauna.

HAMLET

Bihar arratsean jokatu duzue. Ikas zenezakete, behar izanez gero, dozena bat edo hamasei lerroko solas bat, nik idatzi eta obran txertatua? Bai, ezta?

LEHEN ANTZEZLEA

Bai, jauna.

Badoa lehen antzezlea.

HAMLET

Bai, Jainkoa biz zuekin. — Orain bakarrik nago.

Oi, ene doilorra, naizen jopu dongea!

Ez al da gauza dorpea horako antzezle hori, alegiaren ametsez, itxura hutsezko sentimenduz, gai izatea gogoaren betera behartzeko bere arima, halatan non aurpegia zeharo zurbiltzen baitzaio, negarra begietan, hazpegiak nahasiak, etenik ahotsa, eta jardun guztia egokiturik gogoan darabilen irudira? Eta hutsarengatik oro. Hekubarengatik?

Zer da Hekuba horrentzat, edo zer bera Hekubarentzat, hartaz negar egin dezan? Zer egingo luke, sentimendurako nik dudan zio eta dei larria balu? Antzokia luke, hara, malkoz itoko eta solas lazgarriz erdiratuko guztien belarria; erruduna erotu eta errugabea laborritu; ezjakina txunditu, eta harri eta zur eginik utzi, baiki, begi-belarrien ahalak berak. Ni, aldiz, arlote alfer lohi-zaku hau, hor nabil lelo-lelo, Peru Amets halako, neure eginbeharrerako nagi, eta ez naiz gai deus esateko. Ez, ezta errege batengatik, zeinari, bere bizi preziatuarekin batera, guztia baitzioten doilorki kendu. Koldarra al naiz?

[...]

Oi, mendeku!

Ene dorpea, alabaina! Ederki ematen du, gero,



Universidad
del País Vasco

Euskal Herri
Unibertsitate

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2014ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2014

LITERATURA UNIVERSAL

nik, aita laztana hala hil diotenaren seme honek,
zeru-infernuek bultzatua mendekuzko ordainera,
puta baten modura hitzez lasaitu beharra barrena,
madarikazioka, emazirin alproja baten modura!
Hau lotsaria, oi!

Ekin, ene burmuin... Entzuna dut nola
antzeppen bat ikusten ari ziren errudun batzuei
eszenaren bizitasun petoak hain zien
arima barneraino eragin, non hantxe bertan
aldarrikatu baitzituzten beren gaizkintzak.
Bada, mihi ez badu ere, badaki hilketak
organo miragarritz mintzatzen. Antzezleoi diet
aitaren hilketaren antzeko zerbait jokaraziko
osabaren aurrean. Ez diot begirik kenduko,
haragi biziraino barrenduko natzaio. Zirkin bat aski,
nola jokatu jakiteko. Ikusi dudan izpiritua
deabrua izan liteke, eta deabruak badu ahala
itxura atseginez janzteko. Bai, eta, ausaz,
ene ahultasun eta malenkoniak baliaturik
—hagitz indartsua baita halako aldarte—,
kondenatzeko nau engainatzen. Froga nabariagorik
baduket aurki: antzezipena biz xedera baten antzeko:
erregearen kontzientzia han dut nik atzemateko.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herri
Unibertsitate

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2014ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2014

LITERATURA UNIVERSAL

A AUKERA

1. Azaldu ezazu abangoardia poetiko europarren sorrera testuinguru historikoari eta garai hartako pentsamolde-aldaketei lotua, eta adierazi zein diren abangoardiako mugimendu nagusiak. Mugimendu horien barnean, adieraz ezazu zein diren surrealismoaren ezaugarriak, eta eman itzazu partaide batzuen izenak. (3 puntu)
2. Identifika ezazu goian idatzitako pasartea zer obratakoa den, eta adieraz itzazu izenburua, egilea, nazionalitatea, literatura-generoa eta zer une historikotan kokatzen den. Koka ezazu obra autorearen literatura-produkzioaren testuinguruan eta autorea bere garaiko literaturarekin erlazioan. (2 puntu)
3. Pasarte horretan, antzerkia antzerkiaren barnean delako baliabidea agertzen da. Zertan datza baliabide hori, eta zer zeregin du argumentuaren garapenean? Adieraz ezazu obraren zer beste ezaugarri formal eta tematiko agertzen diren hautatutako testuan, eta, azalpenari laguntzeko, erabil itzazu beharrezkotzat jotzen dituzun aipuak. (3 puntu)
4. Testuan, Hamletek bere buruari aurpegiratzen dio bere jokabidea, bere nagikeria, eta bere buruari honela galdetzen dio: "Koldarra al naiz?". Nola erantzungo zenioke zuk galdera horri? Nola epaitzen duzu, oro har, pertsonaiak eskatzen zaion mendekuaren aurrean duen jokaera? Eman ezazu zeure iritzia, argudiatuz, mendekuaren gaiari buruz eta obran mendekuari ematen zaion tratamenduari buruz. (2 puntu)

B AUKERA

1. Azaldu ezazu mugimendu erromantikoaren sorrera bere garaiko aldaketa soziopolitiko eta kulturekin erlazionaturik. Azaldu itzazu, labur, literatura erromantikoaren ezaugarri nagusiak. (3 puntu)
2. Identifika ezazu goian idatzitako pasartea zer obratakoa den, eta adieraz itzazu izenburua, egilea, nazionalitatea, literatura-generoa eta zer une historikotan kokatzen den. Koka ezazu obra autorearen literatura-produkzioaren testuinguruan eta autorea bere garaiko literaturarekin erlazioan. (2 puntu)
3. Pasartean, obraren gai nagusi direnak ageri dira. Aurkitu itzazu, eta azaldu ezazu nola garatzen diren obran zehar. (3 puntu)
4. Hamlet pertsonaia zalantzarekin identifikatu ohi da. Zuk obrari buruz egiten duzun irakurketaren ikuspuntutik, uste duzu identifikazio hori justifikaturik dagoela? Puntu horri dagokionez, zer iritzi duzu zuk pertsonaiaren izaerari buruz? Alderdi horri dagokionez, uste duzu obrak gaurkotasunari eusten diola? Argudia ezazu zure erantzuna ikuspegi pertsonaletik eta zure bizipenetan oinarriturik. (2 puntu).



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

LITERATURA UNIBERTSALA

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

OHARRA

- Oro har, puntu bat kendu ahal izango da (gehienez) ortografia-akatsengatik. Halaber, puntuak gehitu ahal izango dira, baldin eta adierazpena egokia, koherentea eta lotua bada.
- Ebaluazio-adierazle batzuei puntuazio jakin bat esleitu zaie. Hala ere, beste adierazle orokorrago batzuetan, puntuazio globala ematen zaio galdera osoari, eta zuzentzailearen gain uzten da bakoitzari zenbat puntu eman.

A AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Abangoardia poetikoak kronologikoki kokatzen ditu, eta beren testuinguru historikoarekin erlazionatzen ditu: 1 puntu.
- Abangoardiako mugimenduen izenak ematen ditu: 0,5 puntu
- Erakusten du badakiela zer ezaugarri dituen mugimendu surrealista: 1 puntu.
- Surrealismoaren ordezkariaren bat aipatzen du: 0,5 puntu

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 1 puntu.
- Mendeku-tragedia gisa kokatzen du obra Shakespeareren produkzio dramatikoaren barnean: 0,5 puntu
- Shakespeare antzerki barrokoaren testuinguruan kokatzen du: 0,5 puntu

3. galdera (3 puntu)

- Antzerkia antzerkiaren barnean baliabidea ezagutzen du, eta obraren argumentuaren garapenean zer eginkizun duen azaltzen du: 1 puntu.
- Pasartean agertzen den obraren ezaugarri formal bat, gutxienez, identifikatzen eta aipatzen du: 1 puntu.
- Pasartean agertzen den eta obran nagusietakoa den gai bat, gutxienez, identifikatzen eta aipatzen du: 1 puntu.

4. galdera (2 puntu)

- Zuzen eta modu pertsonal eta koherentean erantzuten die galderari.
- Gai da obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko mendekuaren gaiari dagokionez.
- Bere argudioekin indartzen du bere iritzia, eta bere esperientziatik.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Erromantizismoaren sorrera testuinguru historikoan kokatzen du, eta Iraultza Frantsesaren ondoriozko aldaketa soziopolitiko eta kulturekin erlazionatzen du: 1,5 puntu
- Argi azaltzen ditu literatura erromantikoaren ezaugarriak garrantzitsuenak: 1,5 puntu

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 1 puntu.
- Mendeku-tragedia gisa kokatzen du obra Shakespeareren produkzio dramatikoaren barnean: 0,5 puntu
- Shakespeare antzerki barrokoaren testuinguruan kokatzen du: 0,5 puntu

3. galdera (3 puntu)

- Pasartean obraren gai nagusi direnetako bi, gutxienez, aurkitzen ditu testuan: 1,5 puntu
- Modu koherentean, eta ulertuz, adierazten du nola garatzen diren gai horiek obra osoan: 1,5 puntu

4. galdera (2 puntu)

- Zuzen eta modu pertsonal eta koherentean erantzuten die galderari.
- Gai da obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko protagonistaren izaerari dagokionez.
- Bere argudioekin indartzen du bere iritzia, eta bere esperientziatik.
- Gai da pertsonaiaren arazoak gaur egungo munduarekin erlazionatzeko.